

0. GURE IDEIA

Ideia: Linterna Multitool Solar

Deskribapena: Linterna hau teknologia ekologikoaren eta biziraupenerako erabilgarritasun trinkoaren konbinazioa da. Batez ere, eguzki energiarekin funtzionatzen du goiko aldean duen panel erregulagarriari esker, barneko bateria kargatzeko aukera ematen duena. Linternak, ezkutuko biradera bat ere badu, gaueko larrialdietan edo eguzki-argia nahikoa ez dagoenean elektrizitatea sortzeko.

Zergaitik objektu hau eta norentzat? Gaur egun, pandemiaren ostean, jendeak berriro esperientzia berriak bizi nahi ditu naturaz gozatzen duen bitartean, baina horietako askok ez dute beldurragatik egiten edo batzuk ez dira berriro etxera iritsi bidean laguntza faltagatik. Horregatik, linterna honek, bere larrialdietarako kitari esker, esperientziak berriro bizi nahi dituzten guztiei lagunduko die. Linterna hau denei zuzenduta dago baina batez ere, kirola eta natura gustatzen zaienei.